

III. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN SINATUDEN LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA

Jose Francisco Mendizabal Irigoien jaunak, Alkate gisa, Zestoako Udalaren ordezkari gisa, hauxe

ADIERAZTEN DU:

Zestoako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko uztailaren 12an erabaki du administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari atxikitzea, jarraian zehazten diren baldintzei jarraituta eta hitzarmenaren 1.2 klausularen arabera. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago, eta 2017ko martxoaren 24an sinatu zen.

Zestoako Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, hari atxikitzeari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo eguneratu edo etorkizunean aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, hitzarmenean Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako betebeharrak ere bere gain hartzen ditu.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

Zestoako Udala, toki-erakunde horren ordezkari izanik, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaren hitzarmenari atxikitzea, lehenengo klausularen 2. atalean aurreikusitakoaren arabera.

Sinadura: Jose Francisco Mendizabal Irigoien
Zestoako Udaleko alkatea

ANEXO III

PROTOCOLO DE ADHESIÓN AL CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA PRESTACIÓN MUTUA DE SOLUCIONES BÁSICAS DE ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA SUSCRITO EL 24 DE MARZO DE 2017 CON LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO

Jose Francisco Mendizabal Irigoien en calidad de Alcalde y en representación del Ayuntamiento de Zestoa

DECLARA:

Que el Comisión de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zestoa ha acordado, con fecha 12 de julio de 2018 solicitar la adhesión en las siguientes condiciones, en todo lo que le sea de aplicación, al Convenio de colaboración suscrito el 24 de marzo de 2017 con la Administración General del Estado para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica, de acuerdo con la cláusula primera.2 del mismo, y publicado en Boletín Oficial del País Vasco nº 76 de 21 de abril de 2017.

Que el Ayuntamiento de Zestoa conoce y acepta sin reservas el Convenio en todo lo que le es de aplicación respecto de su adhesión, y se compromete al cumplimiento de las obligaciones establecidas en el mismo respecto al acceso y a la utilización de cada una de las soluciones tecnológicas básicas de administración electrónica que prestan sus partes firmantes que están relacionadas en su cláusula segunda, o las que las actualicen o modifiquen en el futuro, asumiendo, en el ámbito de sus competencias, las obligaciones que se establecen para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el Convenio.

Y en consecuencia

SOLICITA:

La adhesión del Ayuntamiento de Zestoa cuya representación ostento, al Convenio de colaboración para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica suscrito el 24 de marzo de 2017 con la Administración General del Estado, de acuerdo con lo previsto en su cláusula primera.2.

Fdo.: Jose Francisco Mendizabal Irigoien
Alcalde del Ayuntamiento de Zestoa